

49. FITXA Lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak finantzatzeko laguntzak

Nori zuzendua: EAEko foru-aldundiak, mankomunitateak, kuadrillak eta udalerrriak edo udalerrien elkarteak, bai eta aurrekoen mendeko edo haiei lotutako organismoak eta gainerako entitateak ere, autonomia- eta toki-entitateen sektore publikoa osatzen dutenak; EAEko tokiko edo eskualdeko garapenerako agentziak eta horiekin lotutako entitateak eta irabazi-asmorik gabeko landa-garapenerako elkarteak.

Sarbide-esteka: [Egoitza elektronikoa - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)

Erreferentziazko araudia: [EBAZPENA, 2024ko uztailaren 10ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita lehentasunezko arretako kolektiboentzako enplegu-proiektu integralak finantzatzeko laguntzen deialdia](#)

Eremuak: Enplegua

Zenbatekoa: 11.500.000 €

Eskabideak aurkezteko epea: 2024/09/30

Laburpena

Deialdi honen xedea dirulaguntzak ematea da, «**Lehentasunezko arretako kolektiboentzako Enplegu-proiektu Integralak**» finantzatzeko. Dirulaguntzen bidez, enplegura bideratutako arreta pertsonalizatua eman nahi zaie 45 urtetik goragoko langabetuei eta gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan daudenei edo kalteberatasun sozialeko egoeran daudenei.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Deialdi honetan araututako dirulaguntzen xedea da **45 urtetik gorako langabetuentzat, bazterketa soziala bizi duten zein bizitzeko arriskuan daudentzat** eta **zaugarritasun-egoeran dauden pertsonentzat** enplegua lortzeko proiektu integralak finantzatzea. Proiektu horiek askotariko ekintzak konbinatuko dituzte, hala nola lan-orientazioa eta aholkularitza, lan-aurreko kompetentzien, zeharkako kompetentzien eta/edo kompetentzia profesionalen prestakuntza, eta enplegua sortzea lanaldi partzialeko aldi baterako lan-kontratuen bidez, aldi berean indartuz benetako berdintasuna eta laneratzeko orduan diskriminaziorik eza.

Gastuetarako aldi hautagarria

Proiektuak **2024ko abenduaren 31** baino lehen hasi beharko dira, eta **2025eko irailaren 30a** baino lehen amaitu.

Laguntzen zenbatekoa

Prestakuntza-, orientazio- eta kontratazio-prozesu osoa amaitzen duen pertsona bakoitzak **17.115 euro** jasoko ditu.